

Bi kanal erabiliko ditugu gure produktua saltzeko, zuzena eta zeharkakoa. Zuzenean bezeroekin harremanetan jartzeko gure webgune pribatua sortuko dugu, bertan erositako toallitak posta bidez banatuko dizkegu bezeroei. Webgunean bezeroek eskaintzak edo hobekuntzak ere jarri ahal izango dizkigute, guk irakurtzeko eta gustukoak izan diren ala ez jakiteko, eta beharbada hobekuntzak egiteko.

Baita ere zeharkako salmenta edo kanala edukiko dugu, hau da, gure toallitak beste denda handietara edo supermerkatuetara salduko ditugu, bertan salmentan jartzeko eta zeharkako salmenta bat sortzeko. Adibidez: Eroski, Carrefour, Clarel... hartuko ditugu kontuan bertan gure produktua saltzeko eta jende gehiagok ezagutzeko aukera hona ikusten dugulako.

